En relación a estos planes no adaptados a la referida Ley 2/2006, su disposición transitoria segunda incorporó un explícito mandato de adaptación señalando con contundencia y rotundidad que *“todos los planes generales y normas subsidiarias deberán ser adaptados a las determinaciones de esta ley, con aprobación definitiva en el plazo máximo de ocho años”*, periodo que finalizó, por lo tanto, el 20 de septiembre de 2014. Posteriormente dicha disposición transitoria ha sido modificada ampliándose el plazo a 15 años, según la Ley 2/2014, de 2 de octubre, de modificación de la Ley 2/2006.

Pero la necesidad y oportunidad de esta revisión no sólo ha de entenderse desde el mandato legal formal puesto que son numerosísimas las disposiciones legales del citado texto que han de incorporarse en el cuerpo sustantivo del planeamiento general. A más incluso, en el periodo de vigencia de esta norma legal de 2006, la regulación urbanística ha sido objeto de una importante transformación producida a través de la promulgación de diversas normas legales atinentes directamente al estatus jurídico del suelo y su titularidad, incidiendo en la sostenibilidad económica y ambiental de la acción urbanística así como en las pautas a seguir en la ordenación de nuestra economía. Todo ello ahonda y abunda en la necesidad y oportunidad, de esta revisión en la que se inserta el presente avance y la intensa fase de información urbanística previa realizada.

Oñatiko AA.SS.en berrikuspenaren eta egokitzapenaren testu bategina onartu zenetik, zortzi aldaketa egin dira, 2008 eta 2014 urteetako iraileko hilabeteetan onarturik eta horietako bik hirigintzako araudiari eragiten diote bereziki eta horietako seik eremu desberdinen antolamenduari.

Baita ere 2008 eta 2014 urteen artean garatu ziren aurreikusitako ia garapen-plan guztiak, eta horietatik erdia baino gehiago 2008an onartu ziren.

2.2. LURRALDE ETA HIRIGINTZA-LEGERIA.

Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren alorrean, aplikatu beharreko araudia, honela laburbil daiteke, eskema modura:

- **7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa**, (EAO, 261. Zenbakiduna, urriaren 31koa) Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duena, azken xedapenetatik bigarrenean ageri den bezala, eta Legegintzako Errege Dekretu hori garatzen duen araudia (**1492/2011 Errege Dekretua**, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Arautegia onesten duena –EAO, 270. zenbakia–).
- **2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa (Eusko Legebiltzarraren Legea, 2006, 256)**, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, eta Lege horren arauzko garapenak, premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren eta hirigintzako estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuaren bitartez egindakoak, eta aurrerago aipatuko ditugunak.
- **4/1990 Legea, maiatzaren 31koa (Eusko Legebiltzarraren Legea, 1990, 213)**, Lurraldearen Antolamendua arautzen duena, zati batean irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren (Eusko Legebiltzarraren Legea, 2003, 324) bitartez garatu zena; Dekretu horrek Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onesteko prozedura arautzen du.

Desde que se aprobó el texto refundido de la revisión y adaptación de las NN.SS. de *Oñati*, se han efectuado ocho modificaciones, aprobadas entre los meses de septiembre de 2008 y 2014, dos ellas afectan particularmente a la normativa urbanística y seis a la ordenación de diferentes ámbitos.

También entre 2008 y 2014 se desarrollaron la práctica totalidad de los planes de desarrollo previstos, de los cuales más de la mitad se aprobaron en el año 2008.

2.2. LEGISLACIÓN TERRITORIAL Y URBANÍSTICA

La normativa aplicable en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en materia de ordenación del territorio y urbanismo, puede ser sistematizada de forma esquemática así:

- **Real Decreto Legislativo 7/2015 de 30 de octubre** (B.O.E. 261 de 31 de octubre) por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Suelo, en los términos que resultan de su disposición final segunda, así como su normativa de desarrollo (**Real Decreto 1492/2011** de 24 de octubre por el que se aprueba el Reglamento de Valoraciones de la Ley del Suelo -B.O.E. número 270-).
- **Ley 2/2006, de 30 de junio (LPV 2006, 256)**, del Suelo y Urbanismo de Suelo y Urbanismo del País Vasco y sus desarrollos reglamentarios producidos por el Decreto 105/2008 de medidas urgentes y Decreto 123/2012 de estándares urbanísticos que citaremos más adelante.
- **Ley 4/1990, de 31 de mayo (LPV 1990, 213)**, por la que se regula la Ordenación del Territorio, desarrollada en parte por el Decreto 206/2003, de 9 septiembre (LPV 2003, 324), por el que se regula el procedimiento para la aprobación de las modificaciones no sustanciales de las Directrices de Ordenación Territorial, Planes Territoriales Parciales y Planes Territoriales Sectoriales.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

- Konstituzioaren aurreko Estatuko legeria osagarria, modu osagarrian aplikatu daitekeena (Espainiako Konstituzioaren 149.3 artikulua onestean); besteak beste, 2159/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa (RCL 1978, 1965), Plangintzaren Arautegia onesten duena; 3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa (RCL 1979, 285), Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onesten duena; 2187/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa (RCL 1978, 1986), Hirigintza Diziplinarako Arautegia onesten duena, eta 635/1964 Dekretua, martxoaren 5ekoa (RCL 1962, 690), Nahitaezko Etxegintza eta Orubeen Udal-erregistroari buruzko Arautegia onesten duena.
- Legislación estatal supletoria preconstitucional, que pueda ser de aplicación supletoria (art. 149.3 in fine de la CE), entre otros RD 2159/1978, de 23 de junio (RCL 1978, 1965), por el que se aprueba el Reglamento de Planeamiento; RD 3288/1978, de 25 de agosto (RCL 1979, 285), por el que se aprueba el Reglamento de Gestión Urbanística; RD 2187/1978, de 23 de junio (RCL 1978, 1986), por el que se aprueba el Reglamento de Disciplina Urbanística y Decreto 635/1964, de 5 de marzo (RCL 1964, 690), por el que se aprueba el Reglamento de Edificación Forzosa y Registro municipal de Solares.

Horiez gain, ezin ahanztu ditzakegu EAEko beste arau batzuk, lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduko xedapenekin zuzenean lotuta daudenak. Besteak beste, ondorengo hauek dira, zehazki:

Sin perjuicio de ello, no deben olvidarse otras normas propias del País Vasco y directamente relacionadas con las disposiciones de ordenación territorial y urbanística. Nos referimos en concreto y, entre otras, a las siguientes:

- **123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa** (EHAA, 143. zenbakia, uztailaren 23koa).
- **105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa** (EHAA, 2008ko ekainaren 23koa).
- **4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.** (E.H.A.O. 42 zenbakia, otsailaren 28koa).
- **3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena** (EHAA, 166. zenbakia, uztailaren 13koa).
- **39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, Eusko Jaurlaritzarena, Babes Publikoko Etxebizitzaren Araubide Juridikoari eta Etxebizitzaren eta Lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa**¹; 36. Artikuluan eta hurrengoetan, esaterako, etxebizitza babestuak sustatzeko eta eraikitze-ko "lurzoruaren alorrean egin beharreko jarduketak" arautzen dira.
- **46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.**
- **Decreto 123/2012 de 3 de julio de estándares urbanísticos** (B.O.P.V. número 143 de 23 de julio).
- **Decreto 105/2008 de 3 de junio de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006 de 30 de junio** (B.O.P.V. de 23 de junio de 2008).
- **Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca.** (B.O.P.V. número 42 de 28 de febrero).
- **Ley 3/2015 de 18 de junio de Vivienda de Euskadi** (B.O.P.V. número 166 de 13 de julio).
- **Decreto 39/2008 de 4 de marzo** del Gobierno Vasco sobre Régimen Jurídico de Viviendas de Protección Pública y Medidas Financieras en materia de Vivienda y Suelo¹ en cuyos artículos 36 y siguientes se regulan, por ejemplo, las "actuaciones en materia de suelo" para la promoción y construcción de vivienda protegida.
- **Decreto 46/2020, de 24 de marzo,** de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

¹ EHAA, 59. zenbakia, 2008ko martxoaren 28koa.
B.O.P.V. número 59, de 28 de marzo de 2008.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

- **Agindua, 2010eko azaroaren 3koa²**, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioa zehazteari buruzkoa, eta lurzorua balorazioan eragina duena.
- **Agindua, 2010eko martxoaren 29koa³**, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udal administrazioek egindako desjabetzeko ez diren jarduketaren isolatuaren ondoriozko birkokatzeari buruzkoa.
- **La Orden de 3 de noviembre de 2010²** del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes sobre determinación de los precios máximos de las viviendas de protección oficial con incidencia en la valoración del suelo.
- **La Orden de 29 de marzo de 2010³** del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, sobre realojo derivado de actuaciones aisladas no expropiatorias realizadas por las Administraciones Municipales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.3. BESTE GAI BATZUETAN INDARREAN DAGOEN LEGERIA

Sektoreetako beste arauketa batzuen eragina oso handia da, bistakoa denez, Hiri-antolamenduko Plan Orokor bat prestatzeari dagokionez. Hirigintza-plangintzari eragiten dioten aipamen batzuk egitera mugatu gara modu laburrean; hasteko eta behin, **ingurumen-araudia** aipatuko dugu, Konstituzioaren 45. artikulutik eratorria. **Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak** -irailaren 24ko 96/61/EB Zuzentarautik datorrena; uztailearen 1eko 16/2002 Legearen⁴ arabera egokitu zen Estatuta Zuzentaru hori, eta Kutsadura Prebenitzeko eta Kontrolatzeko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak⁵ ordeztu du orain lege hori-, **INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUA** sortuta eta, halaber, EAen ekainaren 25eko 4/2015 Legearen⁶ bitartez arautzen dena, eragin argia du hirigintza-prozesuan, eta beharrezko bihurtzen du kalitate-adierazpena (lurzoruen hirigintzako birkalifikazio kasuetan). Hainbesteko eragina du ezen nabarmen baldintzatzen baitu hirigintza-garapena (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAEko 2/2006 Legeak aukera ematen du – nahiko modu inozoan, gure ustez– udalak birpartzelatze-komunitateari deskontaminazioa agindu diezaion, betebeharra duen lurzorua titularraren ordeztu –147.3 artikulua–). Beste horrenbeste esan liteke Estatuaren uztailearen 28ko

2.3. LEGISLACIÓN VIGENTE EN OTRAS MATERIAS.

La incidencia de otras regulaciones sectoriales, obviamente, es muy grande en lo que corresponde a la elaboración de un Plan General de Ordenación Urbana. Limitándonos a una breve referencia de las que afectan al planeamiento urbanístico, iniciamos por la **regulación ambiental** derivada del artículo 45 del Texto Constitucional. La **prevención y control integrados de la contaminación** procedente de la Directiva 96/61/CE de 24 de septiembre, traspuesta al Estado en virtud de la Ley 16/2002 de 1 de julio,⁴ (hoy sustituida por el Real Decreto Legislativo 1/2016 de 16 de diciembre de Prevención y Control de la Contaminación⁵) con la creación de la **AUTORIZACIÓN AMBIENTAL INTEGRADA**, y regulada igualmente en el País Vasco a través de la Ley 4/2015 de 25 de junio⁶ incide indubitadamente en el proceso urbanístico, haciendo precisa la declaración de calidad (en los casos de recalificación urbanística de los suelos) hasta el punto de condicionar de manera relevante el desarrollo urbanístico (la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco posibilita, de forma algo ingenua en nuestra opinión, que el ayuntamiento ordene la descontaminación a la comunidad reparcelatoria en sustitución del titular obligado del suelo -artículo 147.3-). Otro tanto cabría señalar respecto de la regulación de los **residuos y suelos**

²EHAA, 222. zenbakia, 2010eko azaroaren 18koa.
B.O.P.V. nº 222, de 18 de noviembre de 2010.

³EHAA, 98. zenbakia, 2010eko maiatzaren 26koa.
B.O.P.V. nº 98, de 26 de mayo de 2010.

⁴EA0, 157. zenbakia, 2002ko uztailearen 2koa.
B.O.E. nº157, de 2 de julio de 2002.

⁵EA0, 316. zenbakia, 2016ko abenduaren 31koa.
B.O.E. nº 316, de 31 de diciembre de 2016.

⁶EHAA, 123. Zenbakia, 2015eko uztailearen 2koa.
B.O.P.V. nº 123, de 2 de julio de 2015.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

22/2011 Legeak⁷ arautzen dituen **hondakinen eta lurzoru kutsatuen** arauketari dagokionez; Lege horretan (36. artikulua) ñabartu edo mugatu egiten da lurzoruaren titularraren lurzorua deskontaminatzeko obligazioa, aurreikusten baitu, lurzorua deskontaminatzeko kostuei dagokienez, jabeari ezin izango zaiola exijitu eragileak kutsadura eragin zuen unean lurzoruak zuen erabilerari lotutako kutsadura-maila gainditzen duen kosturik. Arautegi horrek, jakina, eragina du lurzoruaren balioan eta egin nahi daitekeen hirigintza-jarduketa baten bideragarritasunean ere.

Era berean, ingurumenaren alderdi honetan, nabarmentzekoa da **zarataren aurkako babesaren** alorreko arauketak izan duen eragina, kontuan izanda espainiar legeriak ez zuela berariazko ia batere araudirik (38/1972 Legea, abenduaren 22koa, atmosfera-ingurugiroa babestekoa; jarduera gogaikarri, osasungaitz eta arriskutsuen 1961eko⁸ arautegia, eta arauketa eskasa, tokian tokiko ordenantzen bitartez). Besteak beste, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1990eko otsailaren 21eko, 1994ko abenduaren 9ko, 1998ko otsailaren 19ko eta 2003ko uztailaren 8ko ebazpenez geroztik ireki zen kontrolerako bide bat, kutsadura akustikoa norbanakoaren eta familiaren intimitaterako eskubideen urraketarekin lotuz. Espainiako Konstituzio Auzitegiak (Konstituzio Auzitegiaren 119/2001 Epaia) eta Auzitegi Gorenaren hainbat ebazpenek europar auzitegiaren doktrina berenganatu zuten, eta gaia arautzeko lehendabiziko urratsak eman zitezten sustatu zuten; horrela, Zarataren buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea⁹ onetsi zen (2002/49/EB Zuzentarauaren transposizioa), azaroaren 16ko 1513/2005¹⁰ eta urriaren 19ko 1367/2007¹¹ Errege Dekretuek garatzen dutena (azken hau zonakatzeko akustikoari buruzkoa, eta zuzeneko eragina duena hirigintzako plangintzan eta egikaritzean). Zortasun Akustikoko, Babes Akustiko Bereziko eta Egoera Akustiko Bereziko Eremu horiek, Zarataren Mapekin batera, plan eta neurri zuzentzaileak ezartzeko bidea eman

contaminados regulados a través de la Ley 22/2011 de 28 de julio⁷ del Estado, y en la que se puntualiza (artículo 36) o delimita la obligación del titular del suelo respecto de la descontaminación del mismo, al prever que respecto de los costes de descontaminación no podrá exigirse al propietario por encima de los niveles de contaminación asociados al uso del suelo en el momento en el que se produjo la contaminación por el causante. Obviamente esta regulación incide también en el valor del suelo y en la viabilidad de una pretendida actuación urbanística.

Del mismo modo, en esta vertiente medioambiental destacamos la incidencia de la regulación en materia de **protección contra el ruido** respecto de la que la legislación española apenas contaba con regulación específica (Ley 38/1972 de 22 de diciembre de protección del ambiente atmosférico; el reglamento de actividades molestas, insalubre y peligrosas de 1961⁸ y una insuficiencia reglamentación a través de ordenanzas locales). Es a partir de las resoluciones de 21 de febrero de 1990, 9 de diciembre de 1994, 19 de febrero de 1998 y 8 de julio de 2003, entre otras, del Tribunal Europeo de Derechos Humanos, cuando se abrió una vía de control vinculando la contaminación acústica con la vulneración de los derechos a la intimidad personal y familiar. El Tribunal Constitucional Español (STC 119/2001) y resoluciones varias del Tribunal Supremo asumieron la doctrina del tribunal europeo dando lugar a los primeros pasos hacia su regulación que se produce con la Ley 37/2003 de 17 de noviembre⁹ del Ruido (trasposición de la Directiva 2002/49/CE) desarrollada por los Reales Decretos 1513/2005 de 16 de noviembre¹⁰ y 1367/2007 de 19 de octubre¹¹ (este último referente a la zonificación acústica de directa incidencia en el planeamiento y ejecución urbanísticas). Estas Zonas de Servidumbre Acústica, de Protección Acústica Especial y de Situación Acústica Especial, junto con los Mapas de Ruido habrán de facilitar la adopción de planes y medidas correctoras como pudieran ser las restricciones

⁷ EAO, 181. Zenbakia, uztailaren 29koa.

B.O.E. nº 181, de 29 de julio.

⁸ EAO, 292. zenbakia, 1961eko abenduaren 7koa.

B.O.E. nº 292, de 7 de diciembre de 1961

⁹ EAO, 276. zenbakia, 2003ko azaroaren 18koa.

B.O.E. nº 276 de 18 de noviembre de 2003.

¹⁰ EAO, 301. zenbakia, 2005eko abenduaren 17koa.

B.O.E. nº 301 de 17 de diciembre de 2005.

¹¹ EAO, 254. zenbakia, 2007ko urriaren 23koa.

B.O.E. nº 254 de 23 de octubre de 2007.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

beharko dute, hala nola zarata-iturriari ordutegiari dagozkion mugak ezartzea, iturri hori nahitaez lekualdatzea eta ibilgailuen zirkulazioa debekatzea edo mugatzea. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, kutsadura akustikoari buruzko **urriaren 16ko 213/2012 Dekretua** aldarrikatu du (EHAA, 222. zenbakia, 2012ko azaroaren 16koa); besteak beste zonakatzeko eta zortasun akustikoaren tipologia garatu zuen, zarata-foku berrietarako mugak ezarrita.

Era berean, plangintzak kontuan izan behar du natura-baliabideen babesa, **urarena** esaterako (1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa¹², eta behin eta berriz egin zaizkion aldaketak, Konstituzio Auzitegiak emandako epaien joan-etorri ugariaren ondoren); uraren kasuan, beharrezkoa da lurzorua erabileran muga garrantzitsuak ezartzea, zortasun eta zaintza-eremuak finkatuta. **Atmosferako airea**, osasungarritasunerako ezinbesteko ondasun gisa; airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeak¹³ arautzen du gai hori, eta eskuhartze publikoa indartzen eta bultzatzen du. **Mendietako basoak eta lurzorua** (43/2003 Legea, azaroaren 21koa, Mendiei buruzkoa¹⁴) eta, guri dagokigunez, Foru Aldundiak gai horren inguruan duen eskumen tradizionala, gaur egun Gipuzkoako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko urriaren 20ko Foru Arauak arautzen duena¹⁵. Aipatzekoak dira **natura-espazio babestuak** ere; apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan¹⁶ daude legez araututa espazio horiek. Batasuneko Garrantzizko Lekuak, Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Fauna Babesteko Eremu Berezia gehitu beharko litzazkieke espazio horiei. **Aire zabaleko erauzketa-jarduerak** ere –Meataritzari buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legea¹⁷ arautzen dira jarduerok– kontuan hartu behar dira plangintzan, hala ezartzen baitu EAeko Lurralde-antolamenduaren Gidalerroak onesten dituen Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak¹⁸,

horarias a la fuente acústica, el traslado forzoso de la misma y la prohibición o limitación del tráfico rodado. El Gobierno Vasco, por su parte, ha promulgado el **Decreto 213/2012 de 16 de octubre** de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco (B.O.P.V. número 222 de 16 de noviembre de 2012), que, entre otras determinaciones, desarrolla precisamente la tipología de la zonificación y servidumbre acústica con el establecimiento de límites para nuevos focos emisores.

Del mismo modo, la protección de los recursos naturales como el caso del **Agua** (Real Decreto Legislativo 1/2001 de 20 de julio¹² y sus reiteradas modificaciones tras un largo excurso de sentencias del Tribunal Constitucional) que precisa de importantes limitaciones en el uso del suelo con la fijación de zonas de servidumbre y policía de necesaria consideración por el planeamiento. El **aire atmosférico** como un bien imprescindible para la salubridad, regulado en la Ley 34/2007 de 15 de noviembre¹³ de calidad del aire y de la protección de la atmósfera, y que refuerza y fortalece la intervención pública en la materia. Los **bosques y suelos de los montes** (Ley 43/2003 de 21 de noviembre de Montes¹⁴) y, en lo que a nosotros respecta, la tradicional competencia foral en la materia, actualmente regulada a través de la Norma Foral de Montes 7/2006 de 20 de octubre del Territorio Histórico de Gipuzkoa.¹⁵ Los **espacios naturales protegidos** cuya regulación legal se halla contenida en el Decreto Legislativo 1/2014 de 15 de abril¹⁶ a los que habrían de sumarse los Lugares de Importancia Comunitaria, las Zonas Especiales de Conservación y las Zonas Especiales de Protección de la Fauna. Las **actividades extractivas a cielo abierto**, por su parte, reguladas en la Ley 22/1973 de 21 de julio de Minas¹⁷ precisan también atención desde el planeamiento, al haberse así establecido en el Decreto 28/1997 de 11 de febrero del Gobierno Vasco por el que se aprobaron las Directrices de Ordenación del Territorio del País Vasco¹⁸

12 EAO, 176. zenbakia, uztailaren 24koa.

B.O.E. nº 176 de 24 de julio.

13 EAO, 275. zenbakia, 2007ko abenduaren 16koa.

B.O.E. nº 275 de 16 de diciembre de 2007

14 EAO, 280. zenbakia, 2003ko azaroaren 22koa.

B.O.E. nº 280 de 22 de noviembre de 2003.

15 GAO, 204. zenbakia, urriaren 26koa.

B.O.T.H.G. nº 204 de 26 de octubre.

16 EHAA, 92. zenbakia, maiatzaren 19koa.

B.O.P.V. nº 92 de 19 de mayo.

17 EAO, 176. zenbakia, 1973ko uztailaren 24koa.

B.O.E. nº 176 de 24 de julio de 1973.

18 EHAA, 29. zenbakia, 1997ko otsailaren 12koa.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

hain zuzen ere, plangintzan erauzketa-jarduera horiek eragindako eremuen mugarriztapena sartu behar dela ezartzen du, beti ere indarrean dagoen baimenik baldin badute .

estableciendo la necesidad de incluir en el planeamiento, la delimitación de las zonas afectadas por estas actividades extractivas siempre que dispusieran de autorización vigente.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi **kultura-ondare higiezinaren babesa** eta horrek, zalantzarik gabe, plangintzan duen garrantzia. Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean araututa dago. Lege hori, aldi berean, honako dekretu bidez garatu da, besteak beste: 234/1996 Dekretua, urriaren 8koa, Balizko Arkeologia Guneak izendatzeko prozedura arautzen duena;¹⁹; 341/1999 Dekretua, urriaren 5koa, interes arkeologikoa duten ondasunak garraiatu, entregatu eta gordetzeko baldintzei buruzkoa;²⁰ 342/1999 Dekretua, urriaren 5koa, Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erroldari eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusiari buruzkoa²¹ eta, batez ere, 306/1998 Dekretua, azaroaren 10ekoa, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari eta horiek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharreko erabakiei buruzkoa²².

Etxebizitza eta zuzkidura-bizitokiak ere ezin ditu alde batera utzi plangintza orokorrak. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, behar handiena zutenei etxebizitza eskuragarriak eskaintzeak kezka berezia eragiten zuen une historiko bateko produktua den aldetik, ahalegin berezia egin zuen, alor horretako estandarrak ezartzen lehenengoa izan zen 17/1994 Legeak ezarritako **etxebizitza babestuen estandarrak** handitzeko (80. Artikulua eta zortzigarren xedapen gehigarria), eta babes-kategoria berriak sortzeko, hala nola etxebizitza tasatuak, araubide autonomikoak zein udal arau-bidekoak. Horrekin batera, “zuzkidura-bizitokiak” deritzenak ere sortu ziren (16. eta 81. artikulua)²³, premia berezia duten kolektiboei aldi

En otro orden de cosas, no podemos dejar de citar también la **protección del patrimonio cultural inmueble** y su indudable importancia en el planeamiento. Se halla regulada en la Ley 6/2019 de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, el Decreto 234/1996 de 8 de octubre de determinación de las zonas de presunción arqueológica;¹⁹ el Decreto 341/1999 de 5 de octubre de condiciones de traslado, entrega y depósito de bienes de interés arqueológico;²⁰ el Decreto 342/1999 de 5 de octubre de Registro de Bienes de Interés Cultural e Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco²¹ y, sobre todo, el Decreto 306/1998 de 10 de noviembre sobre declaración de estado ruinoso de los Bienes de Interés Cultural y de los Inventariados, y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos.²²

La **vivienda y los alojamientos dotacionales** no pueden ser obviados, tampoco, por el planeamiento general. La ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, como producto de un momento histórico determinado en el que preocupaba especialmente la disponibilidad de viviendas asequibles para los más desfavorecidos, dedicó un gran esfuerzo en el incremento de los **estándares de vivienda protegida** (artículo 80 y disposición adicional octava) respecto de su precedente Ley 17/1994 que estableció los primeros estándares en la materia, y a la creación de nuevas categorías de protección como son las viviendas tasadas ya de régimen o regulación autonómica, ya de régimen municipal. Junto con ello, se crearon igualmente los llamados “alojamientos

B.O.P.V. número 29 de 12 de febrero de 1997.

¹⁹ EHAA, 205. zenbakia.

B.O.P.V. número 205.

²⁰ EHAA, 201. zenbakia.

B.O.P.V. número 201.

²¹ EHAA, 203. zenbakia.

B.O.P.V. número 203.

²² EHAA, 226. zenbakia.

B.O.P.V. número 226

²³ 39/2008, martxoaren 4ko Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak (EEAA, 59 zenbakia, 2008ko martxoaren 28koa) zuzkidurazko bizitokiak ezaugarriarautzen du.

La Disposición Adicional tercera del Decreto 39/2008 de 4 de marzo (B.O.P.V. número 59 de 28 de marzo de 2008) contempla las características de los alojamientos dotacionales de régimen autonómico.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

baterako ostatua emateko bizitzeko moduko espazioak. Zehaztapen horiek indartu egin ditu Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko Euskadiko 3/2015 Legeak²⁴; besteak beste, alokairuzko etxebizitza babestuen aldeko berariazko apustu irmoa egiten du.

Hezkuntza da hirigintzako plangintzak jaso eta aurreikusi beharreko beste diziplina eta zerbitzu publikoetako bat. Lurzoruaren araubidearekin eta hiri-antolamenduarekin duen erlazioari dagokionez, bistakoa da ikastetxe publikoek eta itundutako zein itundu gabeko ikastetxe pribatuak –haur-hezkuntzari (*haurreskolak*) zein derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzari (16 urte arte), batxilergoari eta unibertsitate mailako irakaskuntzari dagokionez– espazioak behar dituztela Hirian edo Herrian, landa-ingurunean zein handik gertu (garrantzitsua da **“hiri ingururako ikasleen joan-etorriak minimizatzea”** –Mugikortasun Jasangarriari buruzko Euskadiko Legearen Aurreproiektuaren 3. artikulua), eta hirigintza-planaren berezko egiturazko sarearen barruan dago (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAEko 2/2006 Legearen 53. artikulua eta horrekin bat datozenak). Ez dugu ahaztu behar, esaterako, ekainaren 23ko 2159/1978²⁵ Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintza-plangintzaren Erregelamenduak –osagarri gisa aplikatzekoa dena, aurrez aipatutako Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak adierazten duenez– ikastetxeetarako berariazko lurzoru-estandarrak ezartzen zituela, derrigor bete behar zituztenak bizitegitarako zatiko planek (10. artikulua). Garaiak aldatu egin dira eta, gaur egun, praktikak erakusten du sektore askotan banatutako irakaskuntzarako lurzoru asko dagoela, eta ez dagoela gaur egungo beharretarako nahikoa hedadurako espaziorik eta, batez ere, lehendik dauden ikastetxeak handitzeko benetako zailtasunak daudela. Hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak, bigarren xedapen gehigarrian, “eskoletarako ekipamendu publikorako lurzoruaren erreserba” ezartzen du.

dotacionales”²³ (artículos 16 y 81) en cuanto espacios habitables destinados a dar cobijo transitorio o temporal a colectivos especialmente desfavorecidos. Estas determinaciones se han visto incluso reforzadas por la Ley 3/2015 de 18 de junio²⁴ de Vivienda de Euskadi que, entre otras, realiza una expresa y decidida apuesta por la vivienda protegida en alquiler.

La **Educación** constituye otra de las disciplinas y servicios públicos necesitados de su recepción y previsión por el planeamiento urbanístico. En el plano de su relación con el régimen del suelo y la ordenación urbana, resulta evidente que los centros públicos y privados (sean o no concertados) tanto en lo que respecta a la educación infantil (*haurreskolak*), como a la primaria obligatoria (hasta los 16 años), el bachillerato y la enseñanza universitaria, precisan de espacios en la Ciudad o en el Pueblo ya sea en el medio urbano o en su proximidad (es importante **“minimizar los desplazamientos de los alumnos a las zonas peri urbanas”** -artículo 3, del anteproyecto de Ley de Movilidad Sostenible de Euskadi-), constituyendo parte de la red estructural propia del plan urbanístico (artículo 53 y concordantes de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco). No hemos de olvidar, por ejemplo, que el Reglamento de Planeamiento Urbanístico aprobado por Real Decreto 2159/1978 de 23 de junio,²⁶ de aplicación supletoria según se afirma en el Decreto 105/2008 de 3 de junio del Gobierno Vasco ya invocado, establecía estándares específicos de suelo para centros docentes que forzosamente habían de cumplirse por parte de los planes parciales residenciales (artículo 10). Los tiempos han evolucionado y en la actualidad la práctica demuestra que existen muchos suelos docentes repartidos en numerosos sectores, careciéndose de espacios de la suficiente extensión para las necesidades actuales y, sobre todo, encontrándose verdaderas dificultades para la ampliación de los centros existentes. El Decreto 123/2012 de 3 de julio, de estándares urbanísticos, en su disposición adicional segunda, establece una “reserva de suelo para equipamiento público escolar”.

²⁴ EHAA, 166. zenbakia, uztailaren 13koa.
B.O.P.V. nº 166 de 13 de julio.

²⁵ EHAA, 221 eta 222. zenbakiak, 1978 ko irailaren 15 y 16koa.
B.O.E. números 221 y 222 de 15 y 16 de septiembre de 1978.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

Lurralde mailako eragin argia duen funtsezko beste zerbitzu bati dagokionez, **Osasun arloari**, hain zuzen ere, gogorarazi behar da Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta horren osagarri den arautegian dutela oinarritzeko araubidea Euskadiko Osasun-zerbitzuek.²⁶ Lege horren bitartez osatu zen Euskadiko osasun-sistema eta OSAKIDETZA sortu zen, Zuzenbide Publikoko erakunde pribatu gisa. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren ikuspegitik, osasun-zerbitzueetarako Lurraldean sakabana-tutako zentroak edo establezimenduak behar dira, jakina, leku bakoitzean biztanleek dituzten beharren eta tokiko, eskualdeko edo probintziako dagokion eskalaren arabera, zerbitzuen anizkoitzasuna eta espezializazioa kontuan hartuta. Familia-medikuntzatik hasi eta espezializaziora eta ikerkuntzara arte doazen zerbitzuak dira; azken horietan, oso konplexuak dira egiturak, eta ondo prestatutako profesional kopuru handiak hartzen du parte. Horregatik, eta Lurraldean duen eragina eta zerbitzuok ezinbestekoak direla kontuan hartuta, egokiena litzateke instalazio horiek handitzeko eta establezimendu berriak egiteko asmoak plangintzan aurreikusita egotea, beharbada, lurralde-plangintza ezinbestekoak diren beste zerbitzu batzuetarako bezala egokituta (aurrez aipatu dugun Hezkuntzarekin, esaterako).

Mugikortasunaren (jasangarria) eta garapen ekonomiko eta sozialaren ikuspuntutik ezinbestekoak diren eta lurraldean eragin argia duten beste elementuetako bat (azpiegitura zein zerbitzu publikoa) garraioarena da; Hirigintzak beti jo izan du “egitura orokor eta organikotzat” garraio-azpiegitura (1978ko Hirigintza-plangintzaren Erregelamenduaren 25. artikulua). Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko EAEko 2/2006 Legeak (54. artikulua) “Sistema Orokorren Zuzkidura-sarearen” barruan sartzen duenaren parte da, jakina; eta prozedura honek komunikazio- eta garraio-bideen garapen benetan bizkorrari buruzko hausnarketa egin beharko luke, bai eta horiek, gaur egungo gizartean, ingurumenaren jasangarritasunarekin –eta funtsezko beste printzipio batzuekin– duten loturari buruz ere. Ez gara luzatuko, baina aipagarria da **Lurreko Garraioen Antolamenduari** buruzko araudia, batez ere uztailaren 30eko 16/1987²⁷ Legean jasota dagoena –Konstituzio Auzitegiaren 118/1986 Epaiak

En lo que respecta a otro servicio esencial, de clara incidencia territorial, como es la **Sanidad** procede recordar que los servicios de Sanidad de Euskadi tienen su norma básica en la Ley 8/1997 de 26 de junio de Sanidad del País Vasco²⁶ y su complemento reglamentario. A través de la misma se procedió a la configuración del sistema sanitario de Euskadi así como a la creación de OSAKIDETZA como ente privado de Derecho Público. Desde el punto de vista de la ordenación del territorio y del urbanismo, los servicios de salud precisan, obviamente, de centros o establecimientos esparcidos por el Territorio, de acuerdo a las necesidades de la población en cada lugar y a la debida escala local, comarcal o provincial en función de la multiplicidad de los servicios y su especialización. Se trata de servicios que van desde la medicina de familia hasta la especialización e investigación con estructuras muy complejas en las que participan un elevado número de profesionales cualificados. Por ello, y atendiendo a su incidencia en el Territorio y a que se trata de unos servicios ineludibles (imprescindibles), resultaría procedente que sus perspectivas de ampliación y nuevo establecimiento se hallaren previstos en el planeamiento a partir, quizás, de la planificación territorial adecuada en términos asimilables a otros servicios indispensables (como el de Educación que ya hemos reseñado).

Otro de los elementos (infraestructura a la par que servicio público) ineludibles desde el punto de vista de la movilidad (ya sea ésta sostenible) y el desarrollo económico y social, y de clara incidencia territorial es la del transporte cuya infraestructura siempre ha sido considerada como “estructura general y orgánica” por el Urbanismo (artículo 25 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico de 1978). Se trata, obviamente, de parte de lo que la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco incluye dentro de la “Red dotacional de Sistemas Generales” (artículo 54) y que este procedimiento debería reflexionar en atención al vertiginoso desarrollo de los medios de comunicación y transporte así como de su vinculación a la sostenibilidad ambiental entre otros principios esenciales en la sociedad de nuestros días. Por no extendernos, merecen invocarse la normativa sobre Ordenación de los **Transportes Terrestres** se contiene básicamente en la Ley 16/1987 de 30 de julio,²⁷ cuya constitucio-

²⁶ EHAA, 138. zenbakia, uztailaren 21koa.
B.O.P.V. número 138 de 21 de julio.

²⁷ EAO, 182. zenbakia, 1987 ko uztailaren 31koa.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

aztertu zuen lege horren konstituzionaltasuna, eta zenbait artikulua indargabetu zituen; lege horren xedea dira bidaiarien eta salgaien garraioa, horren jarduerak osagarriak, eta tren, trolebus eta teleferiko bidezko garraioa, eta kable bidez mugitzen diren beste garraiobide batzuen bidezkoa. Aipatzekoa da, bestalde, irailaren 29ko 38/2015 Legeak arautzen duela **Trenbide Sektorea**²⁸; trenbide-azpiegitura, haren plangintza eta eraikuntza ditu xede, batez ere, Estatuaren eskumenekoa den interes orokorreko sareari dagokionez. Aurreko atal batean aurreratu dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak badu Trenbide Sektoreari buruzko Lurraldeko Plan bat; Abiadura Handiko Trenerako lurzoru-erreserba jasotzeaz gain, Gernikako Autonomia Estatuaren arabera autonomia erkidegoaren eskumenekoa diren barneko lineen plangintza ere ezartzen du plan horrek.

Baina **errepideena** eta lurraldean dauden bideen sare amaiezina da hirigintza-antolamenduan eta – plangintzan eragin zuzen eta garrantzitsuena duen komunikazio- eta garraio-azpiegitura. Lurralde Historikoetako foru organoena da eskumen hori (Lurralde Historikoen Legea izenarekin ezagutzen den 1983ko azaroaren 25eko legearen 7. eta 8. artikuluek ezartzen dutenaren arabera)²⁹; Konstituzio Auzitegiaren 76/1988 Epaiak eskumetitulu hori sartu zuen forutasunaren muintzat izendatu zuen horretan eta, are, dagokion lurraldetik igarotzen diren interes orokorreko sareak ere (Europar zeharrekoak) foru organo horiek kudeatzen dituzte. Ondorioz, xedapen hauek osatzen dute errepideen araubidea:

- 20/1990 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Arabako Errepide eta Bideena³⁰.
- 2/2011 Foru Araua, martxoaren 24koa, Bizkaiko Errepideena³¹.

nalidad fue revisada por la STC 118/1986 que anuló varios de sus artículos, y que tiene por objeto tanto el transporte de viajeros y mercancías, como sus actividades auxiliares y los transportes por ferrocarril, trolebús, teleféricos u otros medios en los que la tracción se haga por cable. Y también, La regulación del **Sector Ferroviario** se debe a la Ley 38/2015 de 29 de septiembre²⁸ que atiende principalmente a la infraestructura ferroviaria, su planificación y construcción en cuanto corresponda a la red de interés general de competencia del Estado. Como ya hemos adelantado en un apartado anterior, la Comunidad Autónoma del País Vasco dispone de un Plan Territorial Sectorial Ferroviario que, además de acoger la reserva de suelo para el Tren de Alta Velocidad, establece la planificación de las líneas interiores propias de la competencia autonómica conforme al Estatuto de Autonomía de Gernika.

Pero si existe una infraestructura de comunicación y transporte que incida de manera más directa y relevante en la ordenación y el planeamiento urbanístico es sin duda la **carretera** y la infinita malla de caminos existentes en el territorio. Competencia exclusiva de los órganos forales de los Territorios Históricos (según se establece en el artículo 7 a 8 de la conocida como Ley de Territorios Históricos de 25 de noviembre de 1983),²⁹ la Sentencia 76/1988 del Tribunal Constitucional incluyó este título competencial en lo que calificó como núcleo de la foralidad hasta el punto de que incluso las redes de interés general (transeuropeas) que discurren por sus territorios son gestionadas por los mismos. Su reglamentación viene constituida, en consecuencia por las siguientes disposiciones:

- Norma Foral 20/1990 de 25 de junio de Carreteras y Caminos de Álava.³⁰
- Norma Foral 2/2011 de 24 de marzo de Carreteras de Bizkaia.³¹

B.O.E. número 182 de 31 de julio de 1987.

²⁸ Trenbide Sektorea EAO, 234. zenbakia, irailaren 30koa.

B.O.E. 234 de 30 de septiembre. Sector Ferroviario.

²⁹ EHAA, 182. zenbakia, 1983ko abenduaren 10koa.

B.O.P.V. número 182 de 10 de diciembre de 1983.

³⁰ ALHAO, 147. zenbakia, 1990ko abenduaren 24koa.

B.O.T.H.A. número 147 de 24 de diciembre de 1990.

³¹ BAO, 61. zenbakia, 2011ko martxoaren 29koa.

B.O.B. 61 de 29 de marzo de 2011.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

- 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bategina onesten duena.³²

Arau horiek, beste garraio-egitura batzuei (trenbideak, aireportuak...) dagokien araudiarekin gertatzen den bezala, dagokien plangintza behar izateaz gain, mugakide dituzten jabegoekiko muga garrantzitsuak ezarri beharra eskatzen dute (zortasunak eta afekzio-lerroak), eta hori plangintzan islatuta geratzen da, zalantzarik gabe.

2.4. LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO TRESNAK.

Bestalde, Lurralde-antolamenduari buruzko legeriak hainbat tresna onartzea ekarri du; horien artean, ondorengoak aipatuko ditugu:

- EAEko **Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak**, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu³³ bidez onetsi zirenak behin betikoz (Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretu bidez aldatu zen 1997ko Dekretua, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez –EHAA, 25. zenbakia, 2016ko otsailaren 8koa–), lurraldearen zatiko planen eta lurraldearen arloko planen bitartez garatu dira; horietako batzuek, gainera, eragin zuzena dute hirigintzaren arauketari dagozkion alderdietan, hala nola aparkalekuei dagozkien estandarrak jasotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean (262/2004 Dekretua).

Horri dagokionez, kontuan izan behar da **behin betikoz onetsitako eta indarrean dauden lurraldeko plan partzialak** honako hauek direla:

- Biasteriko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana³⁴ (271/2004 Dekretua, 251/2010 Dekretuak aldatu zuena).
- Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (227/2004 Dekretua, abenduaren 28koa)³⁵

- Texto Refundido aprobado por Decreto Foral Normativo 1/2006 de Carreteras de Gipuzkoa.³²

Todas ellas, al igual que ocurre con la normativa debida a otras infraestructuras de transporte (ferrocarriles, aeropuertos...) conllevan, además de su necesaria planificación, la del establecimiento de importantes restricciones (servidumbres y líneas de afección) sobre las propiedades colindantes, lo que tiene su indudable reflejo en el planeamiento.

2.4. INSTRUMENTOS DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO.

Por otra parte, la legislación de Ordenación del Territorio ha dado lugar a la aprobación de diversos instrumentos entre los que citamos los siguientes:

- Las **Directrices de Ordenación del Territorio** del País Vasco, definitivamente aprobadas en virtud del Decreto 28/1997 de 11 de febrero del Gobierno Vasco³³ (modificado en virtud de Decreto 4/2016 de 19 de enero del Gobierno Vasco en lo relativo a la cuantificación residencial –B.O.P.V. número 25 de 8 de febrero de 2016– han dado lugar a su desarrollo a través de diversos planes territoriales parciales y planes territoriales sectoriales, algunos de los cuales, además, han incidido directamente en aspectos propios de la reglamentación urbanística como el caso de los estándares de aparcamiento previstos en el Plan Territorial Sectorial de creación de suelo para actividades económicas y equipamientos comerciales (Decreto 262/2004).

A este respecto, debe tenerse en cuenta que son **los planes territoriales parciales definitivamente aprobados** y en vigor y que se concretan en los siguientes:

- P.T.P. del Área Funcional de Laguardia (Decreto 271/2004 modificado por Decreto 251/2010).³⁴
- P.T.P. del Área Funcional de Álava Central (Decreto 227/2004 de 28 de diciembre).³⁵

³² GAO, 117. zenbakia, 2006ko uztailaren 21koa.

³³ B.O.G. 117 de 21 de junio de 2006.

³⁴ EHAA, 29. zenbakia, 1997ko otsailaren 12koa.
B.O.P.V. número 29, de 12 de febrero de 1997.

³⁵ EHAA, 29. zenbakia, otsailaren 11koa eta 2010ko urriaren 7 koa.
B.O.P.V. número 29 de 11 de febrero y 194 de 7 de octubre de 2010 respectivamente.

³⁵ EHAA, 32. zenbakia, 2005ko otsailaren 16koa.
B.O.P.V. número 32 de 16 de febrero de 2005.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

- Laudioko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (19/2005 Dekretua, urtarilaren 25ekoa)³⁶.
- Eibar-Debarrenen Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (86/2005 Dekretua, apirilaren 12koa)³⁷.
- **Arrasate-Bergara Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (87/2005 Dekretua, apirilaren 12koa)³⁸**
- Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (32/2006 Dekretua, otsailaren 21ekoa)³⁹.
- Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (179/2006 Dekretua, irailaren 26koa)⁴⁰.
- Beasain-Zumarraga Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (534/2009 Dekretua, irailaren 29koa)⁴¹.
- Igorreko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (239/2009 Dekretua, irailaren 14koa)⁴².
- Durangoko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (182/2011 Dekretua, uztailaren 26koa)⁴³.
- Balmaseda-Zalla Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (226/2011 Dekretua, urriaren 26koa)⁴⁴.
- Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (21/2016 Dekretua, martxoaren 1ekoa)⁴⁵.
- P.T.P. del Área Funcional de Llodio (Decreto 19/2005 de 25 de enero).³⁶
- P.T.P. del Área Funcional de Eibar-Bajo Deba (Decreto 86/2005 de 12 de abril).³⁷
- **P.T.P. del Área Funcional de Mondragón-Bergara (Decreto 87/2005 de 12 de abril).³⁸**
- P.T.P. del Área Funcional de Zarautz-Azpeitia (Decreto 32/2006 de 21 de febrero).³⁹
- P.T.P. del Área Funcional de Bilbao Metropolitano (Decreto 179/2006 de 26 de septiembre).⁴⁰
- P.T.P. del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Decreto 534/2009 de 29 de septiembre).⁴¹
- P.T.P. del Área Funcional de Igorre (Decreto número 239/2010 de 14 de septiembre).⁴²
- P.T.P. del Área Funcional de Durango (Decreto 182/2011 de 26 de julio).⁴³
- P.T.P. del Área Funcional de Balmaseda-Zalla (Decreto 226/2011 de 26 de octubre).⁴⁴
- P.T.P. del Área Funcional Gernika-Markina (Decreto 31/2016 de 1 de marzo).⁴⁵

³⁶ EHAA, 57. zenbakia, martxoaren 23koa.
B.O.P.V. número 57 de 23 de marzo.

³⁷ EHAA, 105. zenbakia, ekainaren 105koa.
B.O.P.V. número 105 de 6 de junio.

³⁸ EHAA, 105. zenbakia, ekainaren 6koa.
B.O.P.V. número 105 de 6 de junio.

³⁹ EHAA, 59. zenbakia, martxoaren 24koa.
B.O.P.V. número 59 de 24 de marzo.

⁴⁰ EHAA, 212. zenbakia, irailaren 7koa.
B.O.P.V. número 212 de 7 de septiembre.

⁴¹ EHAA, 208. zenbakia, urriaren 29koa.
B.O.P.V. número 208 de 29 de octubre.

⁴² EHAA, 205. zenbakia, urriaren 25koa.
B.O.P.V. número 205 de 25 de octubre.

⁴³ EHAA, 171. zenbakia, irailaren 8koa.
B.O.P.V. número 171 de 8 de septiembre.

⁴⁴ EHAA, 224. zenbakia, azaroaren 25koa.
B.O.P.V. número 224 de 25 de noviembre.

⁴⁵ EHAA, 73. zenbakia, apirilaren 19koa.
B.O.P.V. número 73 de 19 de abril.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

- Mungiako Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (52/2016 Dekretua, martxoaren 22koa)⁴⁶.
- Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (121/2016 Dekretua, uztailaren 27koa)⁴⁷.
- Tolosako Eremu Funtzionaleko LPP (Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu zuen 2020/05/19an, eta EHAA argitaratzeke dago).
- P.T.P. del Área Funcional de Mungia (Decreto 52/2016 de 22 de marzo).⁴⁶
- P.T.P. del área Funcional de Donostia-San Sebastián (Decreto 121/2016 de 27 de julio).⁴⁷
- PTP del Área Funcional de Tolosa.(Aprobación definitiva por Consejo de Gobierno de 19/05/2020, pendiente de publicación en el BOPV)

Horiez gain, behin betikoz onetsi dira **lurraldearen arloko plan** hauek ere; horietako batzuek zuzeneko eragina dute Oñati udalerrian:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaierak eta Errekaierak antolatze Lurraldearen Arloko Plana.
- Arabako Errepideen Arloko Plana.
- Bizkaiko Errepideen Arloko Plana.
- Energia Eolikoaren Plana.
- EAEko Trenbide-Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritzako Ekipamenduetarako Lurzorua sortzeko LAP.
- Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.
- Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana.
- Gipuzkoako Hiri-hondakinen Azpiegituri buruzko Lurraldearen Arloko Plana.
- Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana.
- Gipuzkoako Bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Plana.
- Además de ellos, se han aprobado definitivamente también los siguientes **planes territoriales sectoriales** algunos de los cuales sí inciden directamente en el término municipal de *Oñati*:
 - PTS de Ordenación de los Márgenes de Ríos y Arroyos.
 - Plan Sectorial de Carreteras de Álava.
 - Plan Sectorial de Carreteras de Bizkaia.
 - Plan de Energía Eólica.
 - PTS de Red Ferroviaria en la CAPV.
 - PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales.
 - PTS de Zonas Húmedas.
 - PTS de Protección y Ordenación del Litoral.
 - PTS de Infraestructuras de Residuos Urbanos de Gipuzkoa.
 - PTS Agroforestal.
 - PTS Vías Ciclistas de Gipuzkoa.

⁴⁶ EHAA, 92. zenbakia, maiatzaren 17koa.
B.O.P.V. número 92 de 17 de mayo.

⁴⁷ EHAA, 153. zenbakia, abuztuaren 12koa.
B.O.P.V. 153 de 12 de agosto.

PLANGINTZAREN AURRERAKINA. AVANCE DE PLANEAMIENTO
MEMORIA MEMORIA

Gure ustez, lurraldearen antolamendurako aurrez aipatutako tresnak dira hirigintza-plangintzan benetako eragina duten edo erabakigarriak diren planak eta estrategiak; hala ere, gobernuetako organismoek, ministerioek eta sailek, foru aldundietako departamentuek eta hainbat agentziak arlo batzuetan dituzten eskumenak ere hartu behar dira kontuan. EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordea benetako arragoa da, zalantzarik gabe, eskumenean elkarretaratze horri eta Plan Orokorra onesteko prozesuan duen zuzeneko eraginari dagokionez. Hala ere, eskumen horiek erabiltzeak duen izaera loteslea dela eta, idatzizko arauetan eta dagokion mailarekin jasotzen ez denean, zail egiten du, ezinezko ez esatearren, agiri honetan hori mugatzea. Ezin konta ahala dira Gida-Plan bezala departamentu eta instantzia publikoek egiten dituzten eta, berariazko arauetan babestutako salbuespenak salbuespen, arloko ekintza publiko baten gidari edo orientaziozko izaera hutsa dutenak, eta inola ere ez Plan Orokorrerako izaera loteslea edo erabakigarria. Adibide batzuk aipatzearen, Eusko Jaurlaritzaren barruan planteatzen direnak erreferentziatzat hartuz gero, ikusiko dugu askotarikoak direla eta, kasu askotan, ez dutela batere eraginik lurraldean eta, ondorioz, ezta lurraldearen edo hirigintzako plangintzan ere. Honako hauek dira horietako batzuk:

1. Publizitate eta Komunikazio Instituzionalaren Urteko Plana.
2. Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 aldirako III. Gida-plana.
3. Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra 2011-2020.
